

GURE AKURGELA

MAITASUN-MEZUAK

Manu Lopez Gaseni

Institutuko ikasgela bat. Micheleren bizkar zorroan maitasunezkoa izan daitekeen ohar anonimo bat dago. Irakurri, ingurura begiratu, eta egilea zein den igarri nahian hasi da. Baliteke hainbeste gustatzen zaion neska hura izatea, baina ziurtatu beharra dago, tentu handiz ziurtatu ere.

Institutuko ikasgela bat. Inor begira ez dagoenean, Michelek arbelaren atzean tolestaturik utzi duen maitasunezko mezua hartu du neska batek, geroago irrikaz ira-



Liburua:

“Asmatu nor naizen”

Egilea: B. Masine, R. Plumini.

Itzultzailea:

Aitor Arana.

Argitaletxea:

Ibaizabal, 2006.

kurtzeko. Neska abantailarekin jolasten da, Michele, us-tez behintzat, bera nor den jabetu gabe dagoelako oraindik.

Eta jolasak aurrera jarraitzen du: mezu trukaketa etengabekoa izango da lau hilabetez zehar, eta bertan azalaraziko dira gazteen gustu eta zaletasunak, gelakideekin dituzten harremanak, bakoitzaren mundu ikuskera, ordua arte bakoitzak izandako esperientzia bakanen berri... Oroz gain, ordea, maitasuna da nagusi; eta maitasuna adierazteko orduan zaila da neurria hartzea, pinpirinkeriak irakurleen onargarrita-

sunaren ontzian gainezka egin ez dezan. Baina, horretan ere, nor bere neurria du. Micheleren pasarte batek hauxe dio: «Nik ez diet koska egiten liburuei, baina nireei –nireei bakarrik– orriaren goiko punta tolesten diet belarri baten moduan. Zuri horrelako zerbait egitea gustatuko litzaidake, hau da, belarri bat ongi tolestu, ez dezazun beste hitzik entzun, ez beste musikarik, nik berriz hitz egiten dizudan arte» (46. or.). Eta, trukean, Violetak, horixe baita neskaren izena, lehen aipatutako pinpirinkeraren gailurrean, beste hau dio liburuaren amaieral-

dean: «Tira, ez dakit nola esan, etorkizunaz jeloskor nago. Gu izoztu gintzaten nahi nuke, garen bezalakoak, orain eta hemen, bizkar-zorroetan daukagun mezu pila eta guzti. Gu han egotea nahi nuke, izoztuta baina bizirik, garden, taupaka jarraitzen duten begiekin» (94. or.).

Amaieran sorpresa txiki bat aurkituko du irakurleak; beharbada ez, ordea, espero zuena bezain ausarta. Izan ere, irakurle honen ustez, itzulpenak egokitzen handiagoa behar zuen, besteak beste Michele eta Daniele bezalakoak neska-izenak direla pentsatzeko bidea egon daitekeelako, Italian gizonetzkoenak izan arren.